

LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUAREN DIZIPLINA-PROZEDURAREN ERREGELAMENDUA



ICAGI

ILUSTRE COLEGIO DE LA ABOGACÍA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUAREN DIZIPLINA-PROZEDURAREN ERREGELAMENDUA

Euskadiko Autonomia Estatutuko 10.22 artikulua eskumen eskusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari profesionalen elkargoen eta lanbide tituludunen jardueran, betiere Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa alde batera utzi gabe.

Estatutu-eskumen hori abiapuntutzat hartuta, abenduaren 28ko 314/1990 Dekretuaren bidez Legelarien Euskal Kontseiluaren eraketa eta estatutuak onartu ziren.

Dekretu horren 2. artikulua ezartzen duenez, Legelarien Euskal Kontseiluaren eginkizunak dira Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak Estatuan esleituta dituenak, eta, jakina denez, eginkizun horien artean daude Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan diziplinazkoak direnak.

Era berean, Eusko Legebiltzarraren azaroaren 21eko 18/1997 Legeak (tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa) xedatzen du Estatutuek — kasu honetan, Elkargoko Lanbideari buruzkoak— eta horri buruz emandako erregelamenduek zehapen-prozedura arautuko dutela, Abokatutzaren Estatutu Orokorrek xedatzen duen bezala.

Bestalde, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko Legeak (martxoaren 16ko 1/2023 Legea) zehatzeko ahala erabiltzeko printzipio orokorrak eta funtsezko arauak jasotzen ditu, eta horietara jo behar da ezinbestean.

Legelarien Euskal Kontseiluari legez aitortutako ahalmenak betez, egokitze eta beharrezkotzat jotzen da diziplina-prozedurari buruzko erregelamendu propio bat idaztea eta artikulatzea, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Diziplina Erregelamendua kontuan hartuta. Azken hori 2024ko irailaren 2an jarri zen indarrean, eta jarraitu beharreko eredu eta oinarri gisa balio du, baina, hala ere, zenbait alderdi zehaztu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatera egokitzeko.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako elkargoei eta elkargokideei entzunaldia eman zaie, eta Legelarien Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartu egin du, 2025eko abenduaren 15ean egindako bilkuran.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- XEDEA

Erregelamendu honen xedea da diziplina-ahala erabiltzeko prozedura arautzea, honako hauek kontuan hartuta: Elkargo Profesionalei buruzko Legea (otsailaren 13ko 2/1974 Legea), Legelarien Euskal Kontseilua eratzeko dekretua (abenduaren 28ko 314/1990 Dekretua), Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra (martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015

Legea) 2.4 artikulua.

2. ARTIKULUA.- APLIKAZIO-EREMUA

Erregelamendu hau aplikatuko zaie Legelarien Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, Kontseilua) zuzenean izapidetzen dituen prozedurei eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargo profesionalen espedienteei.

Erregelamenduaren helburua da abokatzeko profesionalek, jardunean ez dauden elkargokideek, horiek parte hartzen duten edo zerbitzuak ematen dituzten sozietate profesionalek, lanbidean jarduteko ikastaro edo masterretako kanpo-praktiketako tutoreek eta abuztuaren 3ko 936/2001 Errege Dekretuaren arabera (Espainian jatorrizko herrialdeko tituluarekin egikaritzea ahalbidetzen duena) inskribatuta dauden abokatuak izan dezaketen diziplina-erantzukizuna argitzea, horiek beren lanbide-betebeharrak, kasuan kasuko elkargoaren betebeharrak edo betebeharrak deontologikoak urratzen dituztenean, betiere izan dezaketen erantzukizun zibila edo penala alde batera utzi gabe.

Erregelamendua aplikatuko zaie, halaber, Kontseiluko kideei (hala jarduten dutenean), eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko abokatuen elkargoetako gobernu-batzordeetako kideei.

3. ARTIKULUA.- DIZIPLINAZKO ARAU-HAUSTEAK

1.- Erregelamendu honen ondorioetarako, diziplinazko arau-haustek dira Espainiako Abokatzaren Estatutu Orokorrean, Espainiako Abokatzaren Kode Deontologikoan, Europako Abokatzaren Kontseiluaren Kode Deontologikoan, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko abokatuen elkargoetako estatutuetan eta aplikagarria den araudi autonomiko eta korporatiboan jasotakoak.

2.- Diziplina-zehapena ekar dezaketen arau-haustek honela sailkatzen dira: oso larriak, larriak eta arinak.

4. ARTIKULUA.- ZEHAPENAK

1.- Aurreko artikuluan aipatutako araudiaren arabera, eta arau-haustearen larritasuna kontuan hartuta, honako zehapen hauek ezarri ahal izango zaizkie abokatzeko profesionalei:

- a) Ohartarazpena
- b) Isuna
- c) Abokatzaren jarduna etetea
- d) Elkargotik kanporatzea

2.- Sozietate profesionalen kasuan, baja eman ahal izango zaie dagokion elkargoaren erregistroan, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

3.- Lanbidean jardun ahal izateko ikastaro edo masterretako kanpo-praktiken tutore diren abokatzeko profesionalei honako zehapen hauek ezarri ahal izango zaizkie:

- a) Errieta pribatua

- b) Ahozko ohartarazpena
- c) Idatzizko ohartarazpena
- d) Isuna
- e) Tutore-kargua betetzeagatik lortutako aintzatespenak, pizgarriak edo onurak galtzea
- f) Edozein ikastaro edo masterretan tutore gisa jarduteko gaitasunik gabe uztea

II. TITULUA

DIZIPLINA-PROZEDURA

I. KAPITULUA

PROZEDURA ANTOLATZEKO PRINTZIOIAK

5. ARTIKULUA.- DIZIPLINA-PROZEDURAREN ERAGINPEAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

Diziplina-prozeduren eraginpean dauden pertsonen honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Diziplina-erantzukizunik ez dagoela uste izateko eskubidea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena) 53.2b) artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuta.
- b) Egozten zaizkien egitateen, egitate horiek eragin ditzaketen arau-hausteen eta, hala badagokio, ezar dakizkiekeen zehapenen berri izateko eskubidea, baita instrukzioaren, zehapena ezartzeko eskumena duen organoaren eta eskumen hori esleitzeko arauaren berri izateko eskubidea ere.
- c) Bere aurkako prozeduran deklaratzeari uko egiteko, egokitzen jotzen dituen alegazioak egiteko eta ordenamendu juridikoak onartutako frogabideak eta defentsa-bideak erabiltzeko eskubidea. Diziplina-erantzukizuna garbitzeko espediente baten esparruan errekerimenduei edo komunikazioei ez erantzutea ez da izango Elkargoko organoekiko arretarik edo errespeturik eza.
- d) Azken ebazpenaren arrazoiak jasotzeko eskubidea.
- e) Legeek, lanbideko arauak eta erregelamendu honek aitortutako gainerako eskubideak.

6. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEEN ETA PROZEDUREN KONKURRENTZIA

1.- Jakiten bada zigor-arloko prozesu bat izapidetzen ari dela egitate berberengatik edo lotura estua duten beste batzuegatik, prozedura nahitaez hasiko da eta izapideetan etengo da, 13. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz hartu behar diren behin-behineko neurriak galarazi gabe. Diziplina-prozedura berriz hasiko da dagokion elkargoari edo kontseiluari jakinarazten zaionean agintaritzza judizialak erabaki irmoa eman duela.

2.- Prozedura penalean ebazpen irmoaren berri izanez gero, diziplina-jarduketeki ekingo zaie berriz ere, eta prozedura horretan frogatutako egitateen zerrenda errespetatu beharko da.

3.- Diziplina-prozedura hasi ondoren, ustezko arau-haustea delitu izan daitekeela ikusten den edozein unetan, espedientea irekitzeko agindua eman duen organoari jakinaraziko zaio berehala. Organo horrek erabaki beharko du gertakariak Fiskaltzari jakinarazi behar zaizkion edo ez, eta, hala badagokio, diziplina-prozedura eteteko aukerari buruz egokitzen jotzen duena erabaki beharko du, dagokion elkargoari edo Kontseiluari jakinarazi arte agintaritza judizialak erabaki irmoa hartu duela edo Fiskaltzak ebazpena eman duela.

4.- Espedientea etenda dagoen aldia ez da zenbatuko balizko iraugitze-ondorioetarako, ezta balizko diziplinazko arau-haustearen preskripzio-ondorioetarako ere.

5.- Prozesu judizial bat izapidetzen ari denean, zigor-jurisdikzioa ez den beste jurisdikzio batean, ustezko arau-hausteetatik bereiztea arrazoiz ezinezkoa den gertakari dagokienez, instrukzioak prozesua etetea erabaki ahal izango du, eta, horrela, espedientea izapidetzeko epeen eta preskripzio-epeen zenbaketa eten egingo da.

Arrazoi horrengatik etendako diziplina-prozedura berriz hasiko da instrukzioak uste duenean izapidetze-prozesuarekin jarraitzeko beharrezkoak diren frogak edo argudioak dituela, edo, gehienez ere, agintaritza judizialak erabaki irmoa ematen duenean.

7. ARTIKULUA.- ARAU TEKNIKOAK

1.- Diziplina-prozedura ofizioz bultzatuko da izapide guztietan.

2.- Espedientea elektronikoki izapidetuko da oso-osorik, administrazio-legeria orokorraren premisen arabera, Elkargoaren edo Kontseilu izapidegilearen atariaren alderdi pribatuak horretarako aukera ematen duenean.

3.- Etorkizunean protokolo komun bat ezartzeko xedatuta dagoena ezertan galarazi gabe, erregelamendu honetan araututako prozeduretan honako jarraibide hauek aplikatuko dira aurrerantzean:

a) Arau teknikoak. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako elkargoek eta Kontseiluak diziplinazko espediente elektronikoen alderdi teknologikoak diseinatzeko arauak ezarri eta argitaratuko dituzte.

b) Idazkiak aurkezteko modua. Paperean aurkezten diren dokumentuak erregistratzerakoan, digitalizatu eta itzuli egingo dira.

c) Dokumentuen baliozkotasuna. Formatu elektronikoen sartutako dokumentuek bakarrik izango dute balioa. Elkargoan paperean aurkeztu eta digitalizatzen direnean, horretarako gaitutako langileek sinatuko dituzte, jatorrizkoarekin bat datozela egiaztatzen.

d) Sarrera- eta irteera-erregistroa. Aurkeztu behar diren eta espediente bati erantsi behar zaizkion idazki guztiak elektronikoki erregistratuko dira. Jakinarazi edo komunikatu beharrekoak diren Elkargoak edo Kontseiluak emandakoek irteerazigilu elektronikoa izango dute.

e) Egiaztapen-kodea. Idazki guztiek egiaztapen-kode bat izan beharko dute, benetakoak direla egiaztatzen. Horretarako, organo izapidegileak gaitutako

atariaren atal pribatuan prestatutako formularioan txertatu beharko da kodea.

8. ARTIKULUA.- ESKUMENA ETA LANKIDETZA

1.- Elkargoak edo Kontseiluak uste badu jarduteko lurralde-eskumenik edo eskumen funtzionalik ez duela, eskumena duen korporazioari jakinaraziko dio, eta, hala badagokio, salaketa igorriko dio eta salatzaileari jakinaraziko dio.

2.- Izapidetzeko eskumena duen organoaren inguruan desadostasunik edo zalantzarik izanez gero, bigarren administrazio-instantziari dagokion organoan planteatu ahal izango da arazoa, etete-ondorioekin, elkargoaren araudiak hala aurreikusten duenean.

Bigarren auzialdi hori aurreikusita ez badago, Legelarien Euskal Kontseiluak izango du eskumenari buruzko erabakia hartzeko azken lekukoa, eta autonomia-erkidego desberdinetako elkargoak badira, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak. Ematen duen ebazpenaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri; hala ere, auzia planteatu ahal izango da prozedurari amaiera ematen dion ebazpena aurkaratuz gero.

3.- Instrukzioa amaitzen duen edo izapidetzea bere gain hartzen ez duen organoari egindako idazkiak eta alegazioak espedientean sartu ahal izango dira.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako elkargoren bateko gobernubatzordeko edo Legelarien Euskal Kontseiluko kideren bati egozten bazaizkio egitateak, salaketa edo lekukotza organo eskudunari bidaliko zaio.

5.- Aurrez aurreko izapideak egin behar badira —hala nola jakinarazpenak edo aitorpenak— beste organo korporatibo baten mugapean, organo horren lankidetzak eskatu ahal izango da izapidea eraginkorra izan dadin, eta hark lankidetzak eskaerari erantzun beharko dio.

9. ARTIKULUA.- INFORMAZIO KONFIDENTZIALA EDO ISILPEKOA IZAPIDETZEA

Aldez aurretiko informazioaren faseko edozein unetan edo diziplinazko espedientea ireki ondoren, ofizios edo alderdietako batek hala eskatuta, txostengileak edo instrukzioorganoak sekretu profesionalaren mende dauden datu edo dokumentuen konfidentzialtasuna dekretatu ahal izango du, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorraren 21. artikuluekin eta hurrengoekin eta indarrean dagoen deontologiakodeko 5. artikuluekin bat etorritik. Horiekin atal banandu bat osatuko da, eta salatzaileak eta beste parte-hartzaileak ez dute horretara sarbiderik izango; izan ere, datu edo dokumentu horiek aurkeztu dituenak edo prozeduran aurkaratua izan denak bakarrik izango du sarbidea atal horretara.

10. ARTIKULUA.- EPEAK

Egunetan adierazitako epe guztiak baliodunak izango dira, besterik adierazi ezean. Bestalde, egunetan adierazitako etete-zehapenak egun natural gisa hartuko dira.

11. ARTIKULUA.- JAKINARAZPENAK

1.- Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo zaizkie elkargokideei eta berariaz hala aukeratu dutenei, baita sozietate profesionalei ere. Jakinarazi behar den egintzaren testu osoa eskura jarriko da korporazioak horretarako ezarrita duen atariaren atal pribatuan, eta sarbidea erraztuko da informazioaren transmisioaren benetakotasuna eta segurtasuna bermatzen duen edozein sistemaren bidez.

2.- Bitarteko elektronikoen bidez egindako jakinarazpenak edukira sartzean joko dira egindakotzat eta une horretatik aurrera izango dituzte ondorioak, eta, nolana ere, eskura jarri eta hamar egun naturaleko epean, edukira sartzen ez den kasuetan.

3.- Jakinarazpenak paperean egingo zaizkie Elkargoarekin bitarteko elektronikoen bidez harremana izatera behartuta ez dauden eta bitarteko hori lehentasunezkoztat aukeratu ez duten pertsoneri. Gainera, jakinarazpenak hartzailearen eskura jarri beharko dira Elkargoaren atariaren atal pribatuan, bitarteko elektronikoen bidez edukira sartu ahal izan dadin egiaztapen-kode seguru baten bidez. Bat-bateko agerraldiagatik entregatzen bada ere, paperean egindako jakinarazpenak 43/2010 Legean araututako posta-zerbitzu unibertsalaren bidez egingo dira, 39/2015 Legearen 42. artikulua arabera, baina aldizkari ofizialei buruzko aipamenaren ordezkariak horretarako ezarritako taula elektronikoa edo plataforma erabiliko da.

4.- Jakinarazpena modu subsidiarioan egingo da, Elkargoaren taula elektronikoa argitaratutako iragarki baten bidez, prozedura baten hartzaileak ezezagunak direnean edo non egin daitekeen ez dakigunean, eta argitaratzen denetik hamar egun naturalera izango ditu ondorioak.

Hartzailea bere izen-abizenekin identifikatuko da, eta izen-abizenei nortasun-agiri nazionalerako, atzeritarren nortasun-zenbakiko, pasaporteko edo agiri baliokideko ausazko lau zenbaki gehituko zaizkie. Jakinarazpena hainbat kalteturi buruzkoa bada, ausazko zifra horiek txandakatu egin beharko dira.

Erabakiaren testu osoa argitaratzeak norberaren intimitatearen aurka egin dezakeenez, hirugarrenek horren berri izan dezaketelako, iragarki akordio hori dagoela eta espedientean jasota dagoela bakarrik adieraziko du, eta interesdunak hamar eguneko epea izango du, argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, haren testu osoa ezagutzeko.

5.- Nolanahi ere, jakinarazitzat joko da jasotzaileak jakinarazpenaren berri izan duela egiaztatzen den unean, eta, zehazki, jasotzaileak jakinarazpena hartu izana adierazten duenean edo jakinarazitako egintzaren berri izan duela islatzen duen edozein egintza egiten den unean.

II. KAPITULUA HASTEAK

12. ARTIKULUA.- OFIZIOZ HASTEAK

1.- Prozedura ofizioz hasiko da, eskumena duen organoak hala erabakita, bere ekimenez, diziplinazko arau-haustea izan daitezkeen gertaeren berri duenean, edo salaketa baten ondorioz.

2.- Jarduketak hastea xedatzen duen erabakiak alde zuzeneko informazio-aldi bat ireki ahal izango du (16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera), edo diziplinazko espediente bat (18. artikuluan arabera) edo prozedura sinplifikatu bat (31. artikuluan arabera) hasi ahal izango du.

13. ARTIKULUA.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK

1.- Premia atzerazineko kasuetan, eta tartean diren interesak kautelaz babesteko, beharrezkoak eta proportzionatuak diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

Zehazki, doako laguntza juridikoko zerbitzuen erabilizailerik batek salaketa bat jartzen duenean eta salatutako gertakariaren larritasunak hala gomendatzen duenean, ustez erantzulea den abokatzutako profesionala kautelaz zerbitzutik kentzea erabaki ahal izango da, gehienez sei hilabetez.

2.- Espedientearen eraginpean dagoen pertsonari entzun ondoren hartu beharko da neurria, behar bezala arrazoitu ondoren, eta haren aurka errekurtso autonomoa jarri ahal izango da.

3.- Neurriak hartzen diren erabakian jasoko da neurrien iraupena, eta, nolana ere, eraginik gabe geratuko da espedientearen amaitzen denean.

14. ARTIKULUA.- SALAKETA, SALATZAILEA ETA INTERESDUNA

1.- Salaketak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Salatzaileraren identifikazioa eta sinadura.

b) Gertakariaren zerrenda zehatza eta ustez erantzuleak diren pertsonen identifikazioa.

c) Salatzaileraren helbidea eta, gutxienez, espedientearen gertatzen diren egintzak eta erabakiak jakinarazteko bitarteko bat.

2.- Izendatutako helbidea salatzaileraren helbidetzat hartuko da espedientearen izapidetzen den bitartean, beste bat izendatzen duen arte, hala komuni bazea, eta leku horretan egiten jarraituko dira hurrengo izapideten jakinarazpenak, nahiz eta posta-zerbitzuak edo, hala badagokio, bide elektronikoak jakinarazpenak itzuli. Ezin izango du alegatu jakinarazpenak jaso ez izana, jakinarazpenak espedientearen ageri den helbidera egin badira. Hori guztia 11. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe.

3.- Salaketa bat aurkezte hutsak ez du esan nahi prozeduran interesduna denik. Interesduna ez den salatzailerak —artikulu honen hurrengo apartatuan ezarritako baldintzetan— ez du prozeduran parte hartuko; hala ere, organo eskudunaren komunikazioa jasoko du, prozedura ireki den ala ez jakiteko eta, hala badagokio, amaiera eman dion ebazpenaren berri izateko.

4.- Prozeduran interesdun izango dira une oro arduradun izan daitezkeenak. Baita prozedura sustatzen duten pertsonak edo behin betiko ebazpena eman baino lehen prozedura horretara bertaraten direnak ere, betiere interes legitimo kualifikatua egiaztatzen badute, hau da, prozedura arau-hauste bat dagoela deklaratu edo zehapena ezarriz amaitzeak bere eremu juridikoan modu ziur eta zuzenean eragiten duenean, modu positiboan edo esfera horren gaineko karga

edo zama ezabatuz.

15. ARTIKULUA.- SALAKETA ONARTZEA

1.- Ez zaie bide emango euskarri ez baliagarrian edo horretarako aldez aurretik baimenik ez duen helbide batean telematikoki aurkeztutako idazkiei. Arrazoi horiengatik uko egitea automatizatu ahal izango da.

2.- Salaketak eduki deontologikorik ez duela edo sinesgaitza edo gezurrezkoa dela uste bada, salaketa ez onartzeko eta artxibatzeako agindu ahal izango da izapide gehiago egin gabe, behar bezala arrazoitutako ebazpen egokiaren bidez. Gainera, ez da onartuko hildako pertsona baten edo inoiz elkargokide izan ez den pertsona baten kontra aurkeztutako salaketarik.

Era berean, ez dira onartuko prozeduran interesik ez duten pertsonen aurkeztutako salaketak —Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 30.1 artikulua interesduna nola definitzen duen kontuan hartuta—. Beraz, norbanakoen edo taldeen eskubide edo interes legitimoen titularrek aurkeztutako salaketak bakarrik onartuko dira.

Era berean, izapide gehiagorik gabe artxibatuko dira, ustezko diziplinazko arauhausteengatik kexak sartu gabe, helburu bakarra erantzukizun zibila edo ustezko zabarkeriagatik konpentsazio ekonomikoa erreklamatzeko duten salaketak, baita xede bakarra letraduaren ordainsariak lortzea duten salaketak ere.

3.- Horrez gain, salatzailari eskatu ahal izango zaio, aldez aurretik eta hamar eguneko epean, salaketa izapidetzea onartzeko behar diren agiriak edo aurrekariak osatu, argitu edo aurkeztu ditzala, hala badagokio. Errekerimenduan ohartaraziko da, epea amaitu eta erantzunik eman ez bada, artxibatzea dekretatu ahal izango dela.

4.- Ez onartzea edo artxibatzea behar bezala arrazoitzen duen ebazpena salatzailari jakinaraziko zaio beti, jakinaren gainean egon dadin.

16. ARTIKULUA.- AURRETIAZKO INFORMAZIOA

1.- Dagokion elkargoko gobernu-batzordeak aldez aurretiko informazio-aldi bat ireki ahal izango du, ahalik eta zehaztasun handienarekin zehazteko prozedura hastea eragin dezaketen gertakariak, erantzuleak izan daitezkeen pertsonen identifikazioa eta batzuen eta besteen inguruabar garrantzitsuak, eta diziplinazko espedientea irekitzea komeni den ala ez.

Era berean, gobernu-batzorde jarduleak dekanotza betetzen duen pertsonari, diputatuetak bati, diputatuen talde bati edo Deontologia Batzorde bati eskuordetu ahal izango dio aldez aurretiko informazio-aldia hastea erabakitzeko eskumena.

Nolanahi ere, txostengilea izendatuko da Batzorde Deontologikoko kideen artean, egungo edo iraganeko gobernu-batzordeetako kideen artean, edo hamar urte baino gehiagoko jarduna duten abokatzeko profesionalen artean, eta horren berri emango zaie interesdunari eta salatuari.

Txostengileak ofizioz egin ahal izango ditu arau-haustea izan daitezkeen gertakariak aztertzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak,

eta, horretarako, garrantzitsutzat jotzen dituen datuak eta informazioak bilduko ditu, ikertzeko moduko erantzukizunak ba ote dauden zehazteko.

2.- Aurretiatzko informazioa hastea, izapidetzea eta ebaztea Legelarien Euskal Kontseiluari dagokio, erregelamendu honetako 8. artikuluko 4. apartatuan adierazitako kasuetan.

3.- Aurretiatzko informazioa ebaztean, jarduketak artxibatu egingo dira edo diziplinazko espedientea irekiko da, edo, kasuaren arabera, espediente sinplifikatua irekiko da, eta egindako izapideak espedienteari gehituko zaizkio.

4.- Salbuespenezko egoeretan izan ezik, aldeztu aurretiko informazio-aldia ez da lau hilabetetik gorakoa izango, informazioari hasiera emateko erabakia hartzen denetik ebazpena hura jaso behar duen pertsonari edo pertsonari jakinarazi arte.

5.- Artxibatzeke erabakia salatzaileari eta salatuari jakinaraziko zaie, jakinaren gainean egon daitezen.

17. ARTIKULUA.- DEKANOAREN BITARTEKARITZA

1.- Salatzailea abokatutzako profesionala denean eta lankide batek ustez betebeharrak urratzeagatik egindako arau-haustea denean, dekanok, egokitzat jotzen badu, bitartekaritza-lana egin ahal izango du.

2.- Aukerako bitartekaritza hori aldeztu aurretik hasi ahal izango da, txostengileak edo instrukzioak eskatuta, edo aurretiatzko informazioa edo espedientea Gobernu Batzordeari jakinarazten zaionean, hark ebazpena eman dezan.

Bi aldeak ados jartzen badira, aurretiatzko informazioa edo diziplinazko espedientea artxibatzea proposatuko da, izapide gehiago egin beharrik izan gabe.

3.- Hala ere, bitartekaritza borondatezkoa eta konfidentziala izango da; ezin izango dira espedientean sartu bere bidean erakutsitako dokumentuak, ezta egindako adierazpenak edo alegazioak erabili ere.

Bitartekaritzari uko egitea ezin izango da diziplina-erantzukizuna aldatzen duen inguruabartzat hartu.

4.- Bitartekaritzak eten egingo du aurretiatzko informazio-aldia edo diziplinazko espedientea izapidetzeko epea, gehienez hogeita hamar egunez.

5.- Dekanoak edo bitartekaritzan parte hartu duen pertsonak ezin izango du parte hartu diziplina-prozeduraren ondorengo izapideetan.

18. ARTIKULUA.- DIZIPLINAZKO ESPEDIENTEA IREKITZEKO ERABAKIA

1.- Eskumena duen organoak ofizios erabakiko du diziplinazko espedientea irekitzea, aldeztu aurretik salaketa jarrita edo jarri gabe, eta hari dagokio espedientea ebaztea.

Espedientean automatikoki txertatuko dira aldeztu aurreko informazio-aldian bildutako aurrekari eta dokumentu guztiak.

2.- Prozedura hasteko erabakiak honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:

a) Ustez erantzule direnen identifikazioa.

b) Espedientea hastea eragin duten gertaeren zerrenda zehatza, izan dezaketen kalifikazioa eta oinarri juridikoak, eta legozkiokoen zehapenak, instrukzioetik

ondorioztatzen dena alde batera utzi gabe.

c) Prozeduraren instrukzioaz eta, hala badagokio, idazkaritzaz arduratuko den pertsona izendatzea. Pertsona horiek Deontologia Batzordeko kideak, Gobernu Batzordeko kide izandakoak edo gaur egun direnak edo abokatutzako profesionalak izango dira, hamar urtetik gora jardunean ari direnak. Berariaz adieraziko da errekusatze-araubidea. Izendatutako pertsonak ez dira izango, inola ere, alde zuzeneko informazio-aldian ponentzian aritu direnak, ezta prozedura sinplifikatuan, hala badagokio, edo erregelamendu honen aurreko artikuluan aurreikusitako aukerako dekanoren bitartekaritzan aritu direnak ere.

d) Prozedura ebazteko organo eskuduna eta eskumen hori esleitzen dion araua. Ustezko erantzuleak bere borondatez aitortu ahal izango du bere erantzukizuna, alegazioak egiteko hamar egun baliouduneko epean, eta, kasu horretan, gutxieneko zehapena ezarriko da, betiere arau-hauste bera egiteagatik aurreko hiru urteetan zehapenik jaso ez badu.

Gutxieneko zehapen hori ezartzeko, eteteko denbora edo isunaren zenbatekoa hiru zati berdinetan banatuko da, eta gutxieneko maila hiruretatik txikiena izango da.

e) Diziplina-prozedura hasteko eskumena duen organoak erabakitako behinbehineko neurriak, etorkizunean har daitezkeenak alde batera utzi gabe.

f) Espedientepeko alderdiari edo interesdunari adieraztea alegazioak egiteko eskumena duela hamar eguneko epean, eta adieraztea epe horretan interesgarritzat jotzen dituen dokumentu guztiak aurkeztu eta egokitzen jotzen dituen frogabideak proposatu ahal izango dituela.

3.- Prozedura hasteko erabakiaren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

4.- Dagokion elkargoko gobernu-batzordeak diziplinazko espedientea irekitzea erabakitzeke eskumena eskuordetu ahal izango dio dekanotza betetzen duenari, diputatuetako bati, diputatuen talde bati edo deontologia-batzorde bati.

5.- Espedientea irekitzeko erabakia espedientearen instrukzioaren eta idazkaritzaren esku utziko da, eta egindako jarduketak guztiak helaraziko dira. Izendatutakoren batek onartzen ez badu, beste batzuk izendatuko dira, izapide gehiago egin beharrik gabe. Erabakia espedientepeko alderdiari jakinaraziko zaio, eta erabakia eragin duten aurrekariak adieraziko zaizkio.

6.- Interesdunari ere jakinaraziko zaio erabakia eta, hala badagokio, adieraziko zaio alegazioak egiteko eta baliatu nahi dituen frogabideak proposatzeko aukera izango duela hamar eguneko epean.

7.- Gobernu Batzordearen eskuduntzak, hala badagokio, Legelarien Euskal Kontseiluari dagozkio, hura eskuduna denean.

19. ARTIKULUA.- PROZEDURAK METATZEA

Hasitako edozein prozedura oinarri bera edo lotura estua duten beste prozedura batzuei gehitu ahal izango zaie; hori abiaraztea edo bideratzea dagokion organoak dekretatuko du, eta ebazpenaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

III. KAPITULUA INSTRUKZIOA

20. ARTIKULUA.- INSTRUKZIOA ETA IDAZKARITZA

1.- Organo eskudunak jarraian adierazten diren kasuetan bakarrik ordeztu ahal izango ditu karguak onartu dituzten diziplinazko espedientearen instrukzioaz eta idazkaritza arduratzen diren pertsonak: horiek hiltzen direnean, laneko bajetan, uko egiten diotenean, edo abstentzioari edo errekusatzeari buruzko aldeko ebazpena ematen denean. Kasu horietan, ordezkapena eragin duen arrazoiaren arabera, aurrez egin diren jardueren baliozkotasunari edo baliozkotzeari buruzko ebazpena emango da, azken ebazpenaren ondorioetarako.

2.- Izendapen horien desenkusatzeta eta behin onartuz gero karguei uko egitea onartzea, eta abstenitzeko eta errekusatzeko arrazoiak baloratzea, espedientea ebazteko eskumena duen organoaren eskumen eskusiboa izango da.

3.- Instruktoea eta idazkaria nor diren jakiten den unetik aurrera erabili ahal izango da errekusatzeko eskubidea.

4.- Abstentzioaren eta errekusatzearen arloan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 40/2015 Legea) 23. eta 24. artikuluetan jasotako arauak aplikatuko dira.

21. ARTIKULUA.- FROGALDIA

1.- Frogaldi bat irekiko da honako kasu hauetan:

a) Espedientea hasteko erabakian emandako alegazioen izapidean espedientepeko alderdiak edo interesdunak hala eskatzen duenean. Kasu horietan, frogabide zehatzak proposatu eta egiaztatu nahi diren egitatezko puntuak edo muturreko inguruabarrak adierazi beharko dira, betiere instrukzioak egokitzat jotzen badu proposatutako baliabide horietakoren bat.

b) Instrukzioak beharrezkotzat jotzen duenean egitateak argitzeko eta erantzuleak zehazteko; kasu horretan, beharrezkotzat jotzen dituen froga guztiak egitea erabakiko du.

2.- Instrukzioak frogak egitea agintzen duen ebazpena espedientepeko alderdiari, interesdunari eta balizko interesdunei jakinaraziko zaie, betiere sekretu profesionalaren pean dauden datu edo agirien konfidentzialtasuna errespetatuz, behar besteko aurrerapenez eta froga egingo den lekua, eguna eta ordua adierazita, eta, hala badagokio, teknikariak izenda daitezkeela ohartaraziz.

3.- Instrukzioak kasu hauetan bakarrik erabaki ahal izango du frogaldia irekitzeko eskaera ez onartzea edo frogabide zehatzak ukatzea: frogabide horiek argi eta garbi desagokiak edo alferrikakoak direnean, eta ebazpen arrazoitu baten bidez jakinarazi beharko du.

4.- Frogaldiak hogeita hamar eguneko iraupena izango du gehienez, 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5.- Ez da beharrezkoa izango espedientearen dauden dokumentuak eta alegazioak berriz aurkeztea, baina berriaz erabaki beharko da espedientearen sartuta dauden

dokumentuak edo alegazio-idazkiak atzera botatzea.

6.- Espedientepean dagoen pertsonak edo interesdunak hala eskatuta, gastuak dakartzaten frogak egin behar badira, instrukzio-organoak funts-hornidura bat eskatu ahal izango die, behin betiko likidazioa egiteko, froga egin ondoren. Gastuen likidazioa egiaztagirietako zenbatekoak batuta egingo da.

7.- Instrukzioak froga gisa hartzen dituen erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu; hala ere, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, eta horiek prozedura amaitzen duen egintzan ebatziko dira.

22. ARTIKULUA.- JARDUKETAK ETA ALEGAZIOAK

1.- Egindako alegazioak eta frogak ikusita, hala badagokio, instrukzioak arau-haustea izan daitezkeen gertakariak aztertzeke eta egiaztatzeke beharrezkoak diren jarduketak egin ahal izango ditu ofizioz. Horretarako, zehatzeko moduko erantzukizunik ba ote dagoen zehazteko garrantzitsuak diren datuak eta informazioak bilduko ditu.

2.- Ebazpen-proposamena eman aurretik, alegazioak eta agiriak edo bestelako datuak aurkeztu ahal izango dira prozeduraren edozein unetan, eta hori guztia izan beharko da kontuan.

3.- Instrukzioak artikulua honen arabera bildutako datu, agiri eta informazio guztiak espedientepeko alderdiari helaraziko zaizkio, ebazpen-proposamenarekin batera.

23. ARTIKULUA.- EPEAK LUZATZEA

1.- Instrukzioak, behar bezala arrazoitu ondoren, alegazio-izapideen eta frogaldiaren epeak luzatu ahal izango ditu, behin bakarrik, ezarritako denbora berean edo laburragoan, betiere egin beharreko frogen kopurua eta izaera, aztertutako egoera faktikoen eta gai juridikoen konplexutasuna edo aintzat har daitezkeen beste arrazoi batzuk direla-eta, behar-beharrezkoa bada egitateak eta erantzukizunak behar bezala zehazteko edo espedientepean dauden pertsonen defentsa eraginkorra bermatzeko.

Luzapena eskatzen edo adosten duen idazkian berariaz adierazi beharko dira arrazoi zehatza eta oinarriak, eta epea luzatzea gomendatzen duten aparteko arrazoiak adieraziko dira.

2.- Luzapenak irauten duen bitartean eten egingo da espedientea ebazteko sei hilabeteko epea.

3.- Luzapena agortutzat joko da epea luzatzeko jarduketak amaitzen direnean, eta une horretan berriz irekiko da espedientea izapidetzeko epea.

4.- Espedientepeko alderdiari epea luzatzeko erabakiaren berri eman beharko zaio.

24. ARTIKULUA.- EBAZPEN-PROPOSAMENA

1.- Instrukzioak prozeduraren amaiera ebatziko du, eta jarduketak artxibatzea proposatuko du honako kasu hauetan:

- a) Egitateak ez dagoenean.
- b) Egitateak egiaztatuta gabe daudenean.

- c) Frogatutako egitateak, argi eta garbi, diziplinazko arau-haustea ez direnean.
- d) Erantzulea edo erantzuleak ez daudenean edo identifikatu ahal izan ez direnean, edo erantzukizunetik salbuetsita daudenean.
- e) Edozein unetan, arau-haustea preskribatu dela ondorioztatzen denean.

2.- Aurreko artikuluetako izapideak amaitu ondoren, instrukzioak behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen horretan, frogatutzat jotzen diren egitateak eta horien kalifikazio juridiko zehatza zehaztuko dira, baita arauhaustea bera eta erantzuleak zein izan diren ere. Era berean, zein zehapen jartzea proposatzen den eta egindako frogen balorazioa jasoko da, bereziki erabakiaren oinarri direnak.

3.- Prozeduraren instrukzioaren ondorioz gertakarien hasierako zehaztapena, horien ustezko kalifikazioa, ezar litezkeen zehapenak edo zehatu daitezkeen erantzukizunak aldatzen badira, hori guztia espedientepeko alderdiari jakinaraziko zaio ebazpenproposamenean.

4.- Espedienteak atzerapenen bat izango balu espedientepeko alderdiari egotz dakioken arrazoiren batengatik (jakinarazpenak jasotzeari uko egitea edo oztopoak jartzea, adibidez), eten egingo da ebazpena emateko eta jakinarazteko epearen zenbaketa. Instrukzio-organoak ebazpen-proposamenean jaso beharko du zenbat denbora igaro den gorabehera horren ondorioz.

5.- Espedientepeko alderdiak bere erantzukizuna aitortzeak ez du esan nahi instrukzioak ebazpen-proposamena egin behar ez duenik.

6.- Instrukzioa ohartzen bada ustezko arau-haustea preskribatuta zegoela espedienteari hasiera eman zitzaionean, organo eskudunari jakinaraziko dio berehala, hark ebazpena eman dezan eta izapideen bidez kotasunari buruzko erabakia har dezan. Arau-haustea preskribatuta dagoela uste badu, jarduketak artxibatzeke ebazpena emango du.

25. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAREN AURKAKO ALEGAZIOAK

1.- Ebazpen-proposamena espedientepeko alderdiari eta interesdunari jakinaraziko zaie, espedientearen berri emango zaie eta hamar eguneko epe luzaezina emango zaie, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin eta dagozkien dokumentuak eta informazioak aurkez dituzten.

2.- Zehapenak lanbide-jarduna etetea eta isuna ordaintzea aukeran ematen badu, espedientepeko alderdiak aukera bat edo bestea lehenetsi ahal izango du, baina hori ez da loteslea izango ebazpena hartzeko orduan, erabaki hori hartzea organo eskudunari bakarrik baitagokio.

26. ARTIKULUA.- ESPEDIENTEA EBAZPENA EMATEKO ESKUMENA DUEN ORGANOARI HELARAZTEA

Proposamenaren aurka alegazioak aurkezteko epea igaro ondoren (alegazioak egin diren ala ez kontuan hartu gabe), instrukzioak ebazteko eskumena duen organoari bidaliko dio berehala ebazpen-proposamena, espediente osoarekin batera.

IV. KAPITULUA

PROZEDURA AMAITZEA

27. ARTIKULUA.- AMAITZEKO MODUAK

Diziplina-prozedura ebazpenaren bidez, iraungitza jo ondoren edo jarraitzeko ezintasun materialaren ondorioz amaituko da, gerora sortutako arrazoiengatik.

28. ARTIKULUA.- EBAZPENEA

1.- Diziplinazko espedientearen ebazpenean, espedientea artxibatu edo zehapena ezarri erabaki beharko da. Ebazpena behar bezala arrazoitu beharko da, eta planteatutako gai guztiak aipatu beharko dira, baita izapideetatik eratorritakoak ere.

Ebazpenak alderdi hauek jaso beharko ditu gutxienez: gertakariaren zerrenda xedatua, egindako frogen balorazioa —bereziki erabakiaren oinarri direnak—, erantzulea edo erantzuleak, egindako arau-hausteak eta horiek aurreikusten dituen araua eta aplikatutako zehapena, zehapenaren maila eta hori ezartzen duen araua, edo arauhausterik edo erantzukizunik ez dagoela jasotzen duen adierazpena.

Gainera, zein errekurso jar daitezkeen adieraziko du, baita zein administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion eta errekursoak jartzeko epea ere.

2.- Ebazpena eman aurretik, organo eskudunak prozedura ebazteko ezinbestekoak diren jarduketa osagarriak egitea erabaki ahal izango du, erabaki arrazoituaren bidez.

Jarduketa osagarri horiek hamabost eguneko epean gauzatuko dira gehienez.

Jarduketa osagarriak egin ondoren, espedientepean dauden pertsonen edo interesdunen jakinaraziko zaie emaitza, hala badagokio, egokitza jotzen dutena alegatu ahal izan dezaten zazpi eguneko epean.

Jarduketa horiek egiten diren bitartean eten egingo da 29. artikuluan ezarritako sei hilabeteko epea.

3.- Ebazpenean ezin izango dira kontuan hartu prozeduraren instrukzio-fasean egiaztatu ez diren egitateak, hala badagokio, aurreko apartatuan aurreikusitako jarduketa osagarrietatik eratorritakoak salbu, horien balorazio juridikoa dena dela.

4.- Ebazteko eskumena duen organoak uste badu arau-haustea instrukzioan proposatutakoa baino larriagoa dela, espedientea izapidetu zaion pertsonari edo pertsonen jakinaraziko zaie, eta, hala badagokio, baita interesdunari ere, horiek egokitza jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten. Horretarako, zazpi eguneko epea emango zaie, eta, kasu horretan ere, denboraldi horretan etenda geratuko da 29. artikuluan ezarritako epea.

5.- Ebazpen-proposamenak Elkargotik kanporatzeko zehapena proposatzen badu, dagokion organo eskudunak erabaki beharko du ebazpena, ezkutuko bozketaren bidez (kide guztien bi herenen aldeko botoa beharko da).

6.- Ebazpena eztabaidatzean eta bozkatzean ezin izango dute parte hartu aurreiazko informazioaren txostena egin dutenek eta espedientearen instrukzioaz

eta idazkaritzaz arduratu direnek.

7.- Elkargoaren estatutueta kontrakoa xedatu ezean, eskuordetu egin ahal izango da espedientea amaitu, zehapena ezarri edo artxibatzea agintzen duen ebazpena.

8.- Ebazteko epea eten ahal izango da administrazio-prozedura zehatzailearen oinarrizko araudian eta erregelamendu honetan aurreikusten diren inguruabarretan.

29. ARTIKULUA.- EBAZPENA JAKINARAZTEA

Ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazi beharko zaio espedientepeko alderdiari, diziplinazko espedientea irekitzen denetik kontatzen hasita, eta prozedura salaketa baten ondorioz hasi bada, salaketa egin duenari ere jakinaraziko zaio ebazpena.

Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da zein errekurtsio jar daitezkeen ebazpenaren aurka, zein administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion, eta errekurtsio horiek jartzeko epea; hala ere, egokitzen jotzen duen beste edozein aurkeztu ahal izango du.

30. ARTIKULUA.- IRAUNGITZAT JOTZEA

1.- Espediente ireki zaion pertsonari ebazpenaren berri eman ez bazaio edo horretarako ahalegina egin ez bada legeria erkidean aurreikusitako baldintzetan, diziplinazko espediente ireki eta sei hilabete igaro ondoren iraungitza joko da ebazpena, betiere espedientepeko pertsonari egotz dakizkiekeen arrazoiengatik epearen zenbaketa eten egin daitekeela edo prozedura bera eten egin daitekeela kontuan hartuta.

Kasu horretan, arau-haustea preskribatu ez bada, erabaki horretan bertan espediente berri bat hastea dekretatuko da, erregelamendu honen 18. artikuluan aurreikusitako edukiarekin. Gainera, epea amaitu izan ez balitz berdin mantenduko lirakeen egintza eta izapideak gehitu ahal izango dira espediente berri horretan. Nolanahi ere, prozedura berriari bete egin beharko dira entzunaldiaren, alegazioen eta froga-proposamenaren izapideak.

2.- Elkargoek iraungitako prozedura batean jarduten jarraitzen dutenean, ez da etentzat joko ustezko arau-haustearen preskripzio-epea.

V. KAPITULUA PROZEDURA SINPLIFIKATUA

31. ARTIKULUA.- PROZEDURA SINPLIFIKATUA

1.- Arau-hausteak arinak direnean, organo eskudunak zuzenean zehatu ahal izango ditu, aldeztu aurretik erregelamendu honetan araututako diziplinazko espediente izapidetu beharrik gabe.

2.- Organo eskudunak espedientepeko alderdiaren eta interesdunaren eskura jarriko ditu hasteko erabakia eta, hala badagokio, salaketa eta eskura dituen elementu guztiak, eta hamar eguneko epea emango die eurentzat komenigarriena dena alegatzeko eta, hala badagokio, baliatu nahi dituzten frogabideak aurkezteko. Izapide hori ez da beharrezkoa izango aldeztu aurretiko informazio-aldian horretarako

aukera eman bada.

3.- Epea amaitzean, alegazioak egin ala ez, ebazpen arrazoituan erabakiko da zehapena jartzea, artxibatzea edo diziplinazko espedientea irekitzea.

4.- Ebazpena izapidetu, ebatzi eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da.

III. TITULUA ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

32. ARTIKULUA.- ERREKURRITU DAITEZKEEN EGINTZAK

1.- Prozedurari amaiera ematen dioten ebazpenen aurka (iraungitzat jotzeko ebazpenak barne) errekurtsosa jarri ahal izango da, indarrean dagoen legeriak xedatutakoaren arabera.

2.- Diziplinazko espedientea irekitzeko edo aldez aurretiko informazioa emateko erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu, ezta izapide hutseko egintzen aurka ere.

3.- Era berean, ezin izango da errekurtsorik jarri diziplinazko espedientea artxibatzeko adierazpenen kontra, interes legitimo kualifikatua egiaztatzen duten interesdunek salbu, 14. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera.

33. ARTIKULUA.- ERREKURTSO-BIDEAN DAGOEN PROZEDURA

1.- Aurkeztutako errekurtsoek kasuan kasuko legeriaren arabera aplikatu behar den araubide orokorra bete beharko dute.

2.- Errekurtsosa jartzeko legitimazioa izango dute diziplina-prozeduran zehapena jaso duten pertsonak, baita interes legitimo kualifikatua egiaztatzen duten interesdunek ere, betiere 14. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoa kontuan hartuta.

3.- Errekurtsosa ebazpena eman zuen organoari aurkeztuko zaio, edo zuzenean ebazteko eskumena duenari.

Errekurritutako ebazpena eman duen organoak espedientearen kopia osoa bidali beharko dio, hilabete bateko epean, errekurtsoaren berri izan behar duenari, behar bezala zenbakituta eta kronologikoki ordenatuta, eta hura osatzen duten dokumentuen aurkibide batekin.

Bere eskumenekoak diren errekurtso-prozeduretan, Legelarien Euskal Kontseiluak ebazpen-proposamenak idazteko ahalmena eman ahal izango dio Deontologia Batzorde Profesionalari; bestalde, osoko bilkurari dagokio proposamen horiek onartzea.

4.- Errekurtsosa ez da onartuko honako kasu hauetan:

a) Abokatutzaren Elkargoa edo Legelarien Euskal Kontseilua eskuduna ez denean, hau da, eskuduna beste bat denean. Eskumena ez duen organoak berehala bidali beharko dio errekurtsosa horretarako eskumena duen organoari, eta interesdunei jakinarazi beharko zaie.

b) Errekurtsogileak legitimazio aktiborik ez duenean.

c) Egintzaren aurka errekurtsosa jartzeko aukerarik ez dagoenean.

d) Errekurtsosa jartzeko epea amaitu denean.

e) Errekurtsuak argi eta garbi funtsik ez duenean.

5.- Errekurtsuak ebazterakoan ez dira kontuan hartuko errekurtsogilearen egitateak, agiriak edo alegazioak, baldin eta lehen administrazio-auzaldian jarraitutako espedientean planteatu edo aurkeztu ahal izan badira.

Era berean, ezingo da frogak egiteko eskatu ebazpena eman zen prozeduran frogarik ez egin izana interesdunari egotz dakiokenean.

6.- Errekurtsua helaraziko zaio espedientepeko alderdiari, errekurtsogilea ez bada, baita interesdun gisa ageri diren guztiei ere, bost eguneko epean egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

7.- Errekurtsuari buruzko ebazpena hiru hilabeteko epean eman beharko da, espedientea jasotzen denetik kontaktzen hasita. Errekurtsua ezetsizat joko da epe horretan ebazten ez bada, betiere ebazteko betebeharrarekin bat etorriz.

8.- Errekurtsuaren ebazpenak erabakiko du planteatutako gaien buruz bidezkoa dena, eta horiek onartu edo ezetsiko ditu.

Errekurritutako ebazpenak aldezturik informazioa artxibatzea erabakitzen badu eta berrikuspen-organoak uste badu ustez egindako arau-haustea zehapena jaso dezakeela, edo berrikuspen-organoak uste badu arau-haustearen jokabideari beheko organoak ezarritakoaz bestelako kalifikazioa dagokiola, organo horri itzuliko dio espedientea, ebazpen arrazoituarekin, diziplinazko espedientea bideratu dadin.

Berrikuspen-organoak uste badu espedientea eragin zuen arau-haustea ez den beste bat egon daitekeela, errekurtsua ebatziko du eta Elkargoari helaraziko dio, hark beste espediente bat ireki dezan errekurtsuaren xede den ebazpenean jaso ez den arauhausteagatik.

IV. TITULUA

ZEHAPENEN ONDORIOAK, BETEARAZPENA, JAKINARAZPENA ETA PUBLIKO EGITEA

34. ARTIKULUA.- ZEHAPEN-EBAZPENEN ONDORIOAK

1.- Zehapenek Espainiako Abokatzaren elkargo guztietan izango dute eragina.

2.- Lanbide-jarduna eteten duen zehapenak honako ondorio hauek izango ditu:

a) Abokatzaren berezko edozein jarduera egiteko aukera desgaituko da Estatu osoan.

b) Zigoritutako elkargokideak dagokion elkargoaren bulegoetan entregatu beharko du lanbide-txartela, eta Espainiako Abokatzaren sinadura elektronikoen ziurtagiria baliorik gabe geratuko da.

c) Jardunik gabeko elkargokide izango da zehapenak irauten duen bitartean.

d) Zehatutako pertsonaren espediente pertsonalean eta errolda publikoan jarduneko abokatu ez dela ohartaraziko da.

3.- Elkargotik kanporatzeko zigorra ezarriko da, halaber, erabakia hartu duen korporazioan eta jarduneko edo jardunik gabeko elkargokide gisa ageri den beste edozeinetan, eta zehatutako pertsonak ezin izango du beste elkargo batean jardun.

4.- Eteteko edo kanporatzeko zigorrak ezarri arren, abian egon daitezkeen beste espediente batzuen izapidetze-prozesuak aurrera jarraituko du. Ezar daitezkeen beste edozein zehapen betetzeke geratuko da zehatutako pertsona berriz laneratu arte, hala badagokio, edo ezarritako beste eteteko zehapen baten epea amaitu arte.

35. ARTIKULUA.- ZEHAPEN-EBAZPENAK BETEARAZTEA

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako gobernu-batzordeek edo Legelarien Euskal Kontseiluak erregelamendu honen berezko arloan emandako ebazpenak ezin izango dira betearazi administrazio-egoitzan irmo bihurtu arte, har daitezkeen behin-behineko neurriak denak direla; hala ere, aparteko berrikuspenerrekurtso berezia jarri ahal izango da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 125. artikulua araberera.

2.- Jarduna eteteko edo kanporatzeko zehapena jaso bada, zehapena betearazi behar duen organoak hasiera-data ezarri beharko du, organoari administrazio-ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua ebazten duen ebazpen judizialaren irimotasuna jakinarazten zaion egunetik aurrera.

3.- Zehapenak betearazteko eskumena ebazpena hartu duen organo korporatiboari dagokio, zehatutako pertsona elkargokide ez izan arren. Hark ahal duen guztian lagunduko du zentzu horretan.

4.- Ohartarazpen-zehapena egintzaren jakinarazpenarekin batera betearazten da, ebazpenaren irimotasuna adieraziz. Zehapena Legelarien Euskal Kontseiluari eta Espainiako Abokatzuzaren Kontseiluari jakinaraziko zaie.

36. ARTIKULUA.- ETETEKO ESKAERA

Errekurtsua jarri bada zehapena ezartzen duen organo eskudunak emandako ebazpenaren aurka, errekurtsogileak idatziz eskatu ahal izango du zehapena bete beharra eteteko neurria hartzea, aplikatzekoa den administrazio-legeriaren arabera.

Hala ere, errekurtsua jaso duen organoak horri buruz erabakitzen duena hartuko da kontuan.

37. ARTIKULUA.- ZEHAPENAK JAKINARAZTEA

1.- Lanbide-jarduna eteteko edo elkargotik kanporatzeko zehapena betearazteko erabakia jakinaraziko zaie zehatua elkargokide den elkargoari edo elkargoei, Legelarien Euskal Kontseiluari, Espainiako Abokatzuzaren Kontseilu Nagusiari — gainerako abokatuak elkargoei jakinaraz diezaien —, autonomia-erkidegoetako kontseiluei, dagokion justizia-auzitegi nagusiko lehendakariari, dagokion probintzia-auzitegiko lehendakariari, herriko epaitegietako dekanuari, epaitegi dekanoei eta korporazio bakoitzaren lurralde-eremuko gainerako organo judizialei, eta zehapena betetzeko neurri egokiak har daitezela eskatuko zaie.

Era berean, elkargokidearen jarduna eteteko edo lanbidetik kanporatzeko zehapenaren berri emango zaie atxiloteta-zentroei.

2.- Jakinarazpena egitean, zehatutako pertsonaren izen-abizenak eta elkargokidezenbakia adieraziko dira, baita etenaldia zenbatekoa izango den ere. Egindako arauhaustea ez da inola ere aipatuko, ezta zehapena ezartzeko oinarritzat hartu diren datu zehatzak ere.

38. ARTIKULUA.- ZEHAPENAK PUBLIKO EGITEA

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoek ezarri diren diziplina-zehapenak jakinarazi ahal izango dizkiete beren elkargokideei, horiek irmoak direnean, baldin eta zehapenak elkargokideren bat abokatutzatik kanporatzea edo bere jarduna etetea dakarrenean, horrek jardun profesionalari eragiten diolako; hala ere, zehatutako pertsonaren izen-abizenak eta etenaldi zehatza bakarrik jakinaraziko dituzte. Egindako arau-haustea ez da inola ere aipatuko, ezta zehapena ezartzeko oinarritzat hartu diren datu zehatzak ere.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoek, Legelarien Euskal Kontseiluak eta Espainiako Abokatutzaren Kontseiluak abokatuek egindako jardueri buruzko diziplinazko datuak tratatu eta elkarri laga ahal izango dizkiote beren eginkizunak betetzean eta legez ezarritako betebeharrak betez.

3.- Zehapenak publiko egitearen helburua da elkargokideen zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaile direnen interesak babestea; beraz, lanbidean jarduteko gaikuntzari eragiten ez dioten zehapenak ez dira argitaratuko.

4.- Zehapenak publiko egiten direnean, horietan ezinbesteko informazioa bakarrik jasoko da, hau da, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek profesional bakoitzaren egoera zehatza zein den ezagutzeko behar-beharrezkoa den informazioa bakarrik. Publiko egiten diren zehapenetan adieraziko da elkargokidea aldi baterako desgaituta dagoela lanbidean jarduteko.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoek eta Legelarien Euskal Kontseiluak, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiarekin koordinatuta, zehapenen argitalpena kudeatuko dute. Zehapena oso-osorik argitaratuko da, elkargo bakoitzera mugatu gabe, Elkargo Profesionaleri buruzko Legearen 3.3 artikuluaekin bat etorritik, Abokatutzaren erakunde profesionalak emandako informazioaren zehaztasunari eta osotasunari berme handiagoa emateko.

6.- Zehapena bete ondoren, ez da argitaratzen jarraituko. Zehapenaren erregistroa legez aurreikusitako epean bakarrik agertuko da elkargokidearen fitxan, zehapena ezerezte arte, lehen aipatutako legearen 5.u) artikuluan ezarritako informazio-betebeharrei erantzuteko.

7.- Interesdunei behar bezala jakinarazi behar zaie, beren datuak tratatu aurretik, beren datuak erregelamendu honetan aurreikusitako moduan eta kasuetan argitaratuko direla eta zehapenen erregistroan sartuko direla.

8.- Datuen titularren eskubideak errespetatu eta bete beharko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 15. artikulutik 22. artikulura eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (Datu pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa) 12. artikulutik 18. artikulura aurreikusitakoaren arabera.

V. TITULUA

DIZIPLINA-ERANTZUKIZUNA AZKENTZEA

39. ARTIKULUA.- DIZIPLINA-ERANTZUKIZUNA AZKENTZEKO ARRAZOIAK

1.- Elkargokideen, sozietate profesionalen, praktiketako tutoreen eta Legelarien Euskal Kontseiluko eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoetako gobernu-batzordeetako kideen diziiplina-erantzukizuna azkendu egingo da zehapena betetzear, hiltzear, arau-haustea preskribatzeaz eta zehapena preskribatzeaz.

2.- Diziiplina-prozedura izapidetzen den bitartean espedientepeko pertsona hil egiten bada, ebazpena emango da erantzukizuna iraungitzat jotzeko eta jarduketak artxibatzeko.

3.- Jardun profesionalean baja emateak ez du esan nahi alta-aldian hartutako diziplinaerantzukizuna iraungi egiten denik, nahiz eta gaur egun erabakitako zehapena betearaztea ezinezkoa izan.

Kasu horretan, kasuan kasuko elkargoak edo Legelarien Euskal Kontseiluak diziplinaprozedura izapidetzen jarraituko du, hura amaitu arte, eta, zehapenik egonez gero, betearazpena eten egingo da, zehatutako pertsonak lanbidean berriro alta eman arte, bere baitan nahiz Espainiako estatuko beste edozein elkargotan lanean hasita.

4.- Oro har ezarritakoari kalterik egin gabe, espedientepean dagoen pertsonari baja eman bazaio edo espedienteaz izapidetzen duen elkargoan sartuta ez badago, baina bai Espainiako Abokatutzaren beste elkargo batean, emandako ebazpena, zehatzailea bada, dagokion kontseilu autonomikoari eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari jakinaraziko zaie, elkargo eskudunak kanporatze- edo etete-zehapenak betearazteko zehatutako datak adierazita; horrela, informazio hori helaraziko zaie dagokion elkargoari edo elkargoei eta gainerako elkargo guztiei, zehapena Espainiako Abokatutzaren elkargo guztietan eraginkorra izan dadin.

40. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK PRESKRIBATZEA

1.- Arau-hauste oso larriak hiru urte igarotzeaz preskribatuko dira, larriak bi urte igarotzeaz, eta arinak sei hilabetera.

Arau-hausteak preskribatzeko epea arau-haustea bera egin den egunetik kontatzen hasiko da. Preskripzioa eten egingo da zehapen-prozedura hasten bada, interesduna jakinaren gainean dagoela.

Nolanahi ere, preskripzio-epea zenbatzen hasiko da berriro, prozedura hilabete baino gehiagoz geldirik badago elkargokideari egotz ezin dakizkikeen arrazoiengatik.

Arau-hausteak jarraituak badira, preskripzio-epea arau-haustea eragin duen jarduera edo azken egintza amaitzen den egunean hasiko da zenbatzen, edo, hala badagokio, eragindako alderdiak arau-haustea egin duela jakiten duenean.

2.- Zehapen oso larriak hiru urte igarotzeaz preskribatuko dira, larriak bi urte

igarotzean eta arinak sei hilabetera.

Zehapenen preskripzio-epea zehapenak betearazi eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen. Preskripzioa eten egingo da betearazpen-prozedura hasten denean (interesduna jakitun dela), eta epea berriz igaroko da, baldin eta prozedura hori hilabete baino gehiagoz geldirik badago arau-hausleari egotz ezin dakiokkeen arrazoiengatik.

Kanporatzea edo abokatua ren lanbide-jarduna etetea zehatuz gero, kasuan kasuko elkargoak edo Legelarien Euskal Kontseiluak zigorra betearazteko eguna ezarri ahal izango du, erregelamendu honen 35.2 artikulua ren arabera, eta, kasu horretan, preskripzio-epea egun horretatik aurrera hasiko da kontatzen.

41. ARTIKULUA.- BIRGAITZEA

1.- Kanporatzeko zehapena jaso duen abokatutzako profesionalak lanbidean jarduteko birgaitzea lortu ahal izango du, baldin eta Abokatutzaren Estatutu Orokorren 13. artikuluan ezarritako baldintzak eta epeak betetzen baditu. Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko elkargokideen kasuan, aipatutako elkargoaren estatutuetako 100. artikulua ere bete beharko du edo, hala badagokio, aipatutakoak ordeztu dituzten arauak.

2.- Birgaitzeko espedienteak izapidetzea zehapen-ebazpena hartu duten organoei dagokie.

3.- Birgaitzeari buruzko espedienteak eta ebazpenak Euskal Legelarien Kontseiluari eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiar jakinaraziko zaizkie.

42. ARTIKULUA.- ZEHAPENEN IDATZOHARRA EZEREZTEA

1.- Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrean ezarritako epeak igaro eta baldintzak betetzen direnean, zehapenen idatzoharra ezereztu egingo da elkargokidearen edo sozietate profesionalen espedientetik.

2.- Idatzoharra ezereztea ofizioz edo zehatutako pertsonak edo sozietate profesionalek hala eskatuta erabaki ahal izango da, eta horrek erabateko birgaitzea ekarriko du; hala ere, idatzoharra ezerezi izana eta aurreko artikuluan aurreikusitakoa jaso ahal izango da espediente pertsonalean.

3.- Ezerezteko espedienteak izapidetzea zehapen-ebazpena hartu duten organoei dagokie.

4.- Ezerezteari buruzko espedienteak eta ebazpenak Legelarien Euskal Kontseiluari eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiar jakinaraziko zaizkie, eta, hala badagokio, baita jardunean hasiko den elkargoari ere.

XEDAPEN GEHIGARRIA.-

Erregelamendu honetan aurreikusten ez den guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (urriaren 1eko 39/2015 Legea) jasotzen diren prozedurari buruzko arauak aplikatuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA.-

Erregelamendu hau indarrean jarri aurretik abiarazi diren, baina oraindik izapidetzen ari diren diziplinazko espedienteak eta aurretiazko informazio-aldiak espedienteak hasi zen unean indarrean zeuden arauak arautuko dituzte, amaitu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.-

Erregelamendu hau indarrean sartzean indargabetuta geratuko da Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuaren Diziplina Arautegia, 2006ko abenduaren 15ean egindako ohiko batzar orokorrean onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (9. zk.) 2007ko urtarrilaren 12an argitaratua. Indargabetuta geratuko dira, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako abokatuen elkargoek edo Legelarien Kontseiluak hartutako maila bereko xedapenak eta erabakiak, baldin eta erregelamendu honetan xedatutakoaren aurka badaude.

AZKEN XEDAPENA.-

Erregelamendu hau Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako elkargoei jakinaraziko zaie (hau da, Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsuari, Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuari eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuari), eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, erregelamendu honen 11. artikuluko 1. eta 3. epigrafeetan xedatutakoa izan ezik. Izan ere, hori ez da indarrean jarriko aipatutako elkargoek eta Legelarien Euskal Kontseiluak egoitza elektronikoa jakinarazpenak egiteko baliabideak dituzten arte.

